



**2024KO MARTXOAREN 4KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko martxoaren 4an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko otsailaren 19an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 13 zenbakidun zerrenda, EHUN ETA ZORTZI MILA EHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI euro ETA BERROGEITA HEMEZORTZI zentimokoa (108.149,58 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- GEZ BIDEZKO MATERIAL ELEKTRIKOAREN HORNIDURAREN KONTRATAZIOA (BERDIN, S.L., 2017) BERMEA EZEREZTEA.-

2017ko martxoaren 10ean Tokiko Gobernu Batzordeak, Gipuzkoako Erosketa Zentralaren bitartez, material elektrikoaren hornidura BERDIN S.L. enpresari esleitu zion, eta beronek 1.000,00 €-ko abala aurkeztu zuen Udalean, hornidura kontratua zuzen eta behar bezala burutzeko berme gisa.

Kontratua eta, beraz, berme-epea amaiturik, BERDIN S.L.-k 2024ko otsailaren 8an Lazkaoko Udalaren erregistro elektronikoan sarrera eman dion eskaeraren aurrean, eta Udal teknikariak burutu duen txostenean oinarriturik, Tokiko Gobernu Batzorde honek, aho batez, 1.000,00 €-ko behin-betiko bermea ezereztea erabaki du.

IV.- GEZ BIDEZKO POSTA ZERBITZUAREN ESLEIPENA.-



Udal honek, Gipuzkoako Kontratazio Zentralak izapidatutako posta zerbitzuaren kontratazio espedienteari bere atxikimendua ematea erabaki zuen.

Kontratazio espediente horren barruan, Gipuzkoako Erosketen Zentralak, egindako esleipenen berri eman dio udal honi eta honen aurrean udalak kontratu eratorrien esleipena egitea dagokio.

- Posta zerbitzua, 1. sorta.-

Diputatuen Kontseiluaren 2023ko azaroaren 14ko erabakian jasotako eskuordetza medio, Gobernantzako foru diputatuak 2024ko urtarrilaren 17ko foru aginduaren bitartez, GUREAK MARKETING S.L.U. (NIF: B20158218) enpresarekin, 1. sorta "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatzeako esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikulua arabera, esparru akordioan oinarritutako kontratua adjudikatzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, udalaren posta zerbitzuaz arduratzen den udaltzain buruak 2024ko martxoaren 1ean emandako txostenaren arabera, aipatu zerbitzuaren beharra dela eta, posta zerbitzuari (1. sorta) buruzko kontratua, Esparru Akordioa burutzea erabaki den enpresa berari adjudikatzea proposatzen du.

Administrazio honek kontratatu beharko duen zerbitzua zenbatetsiz, gutxi gorabehera, urteko 6.500,00 euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Hori dela eta, 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 221. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua GUREAK MARKETING S.L.U. (NIF: B20158218) enpresari adjudikatzea, izenpetutako Esparru Akordioan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

LEHENENGO.- Adjudikatzea GUREAK MARKETING S.L.U. (NIF: B20158218), enpresari, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatzeako esparru akordioan" (1. sorta) oinarritutako kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- GUREAK MARKETING S.L.U. (NIF: B20158218) enpresaren alde baimentzea eta xedatzea, aurtengo ekitaldiari dagokion 6.500,00 euroko gastua, 1 222.02.920.00 partidaren kargura.

HIRUGARREN.- Akordio honen eranskina onestea Lazkaoko Alkatearen eta GUREAK MARKETING S.L.U. enpresaren arteko mandatu gisa, tratamenduaren eragile gisa jarduten duenean, 2016/679 (UE) Araudiaren 28.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidetik, eta akordio honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA jar daiteke Donostian dagoen Gipuzkoako





Kontentzioso-Administratibo Auzitegiaren aurrean, bi hilabeteko epearen barruan, akordioaren jakinarazpena jasotzen denetik hasita. Hau guztia Herri-Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015ko Legearen 114,c atalean xedatutakoaren arabera, Administrazioarekiko Auzitarako Legemendeari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8 eta 46 atalekin eta Kode Zibilaren 5 atalarekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izan ezker, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoaren aurretik, akordio honen aurka BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkez dakioke akordioa hartu zuen organoari HILABETEKO epean.

Guzti hau, egoki deritzan bestelako edozein errekurtso jarri ahal izatearen kalterik gabe.

- Posta zerbitzua, 2. sorta. -

Diputatuen Kontseiluaren 2023ko azaroaren 14ko erabakian jasotako eskuordetza medio, Gobernantzako foru diputatuak 2024ko urtarrilaren 18ko foru aginduaren bitartez, SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, S.A. S.M.E. (NIF: 83052407) enpresarekin, 2. sorta "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatzeke esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikulua arabera, esparru akordioan oinarritutako kontratua adjudikatzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa sinatu ondoren, udalaren posta zerbitzuaz arduratzen den udaltzain buruak 2024ko martxoaren 1ean emandako txostenaren arabera, aipatu zerbitzuaren beharra dela eta, posta zerbitzua (2. sorta) buruzko kontratua, Esparru Akordioa burutzea erabaki den enpresa berari adjudikatzea proposatzen du.

Administrazio honek kontratatu beharko duen zerbitzua zenbatetsiz, gutxi gorabehera, urteko 4.000,00 euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Hori dela eta, 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 221. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS S.A. S.M.E. (NIF: A83052407) enpresari adjudikatzea, sinatutako Esparru Akordioan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

LEHENENGO.- SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS S.A. SME (NIF: A83052407), enpresari adjudikatzea, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatzeke esparru akordioan" (2. sorta) oinarritutako kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.



BIGARREN.- Baimentzea eta xedatzea SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, S.A. S.M.E. (NIF: A83052407) enpresaren alde, aurtengo ekitaldiari dagokion 4.000,00 euroko gastua, 1 222.02.920.00 partidaren kargura.

HIRUGARREN.- Onestea ebazpen honen eranskina Lazkaoko Alkatearen eta SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS S.A. S.M.E. enpresaren arteko mandatu gisa, tratamenduaren eragile gisa jarduten duenean, 2016/679 (UE) Araudiaren 28.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidetik, eta akordio honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA jar daiteke Donostian dagoen Gipuzkoako Kontentzioso-Administratibo Auzitegiaren aurrean, bi hilabeteko epearen barruan, akordioaren jakinarazpena jasotzen denetik hasita. Hau guztia Herri-Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015ko Legearen 114,c atalean xedatutakoaren arabera, Administrazioarekiko Auzitarako Legemendeari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8 eta 46 atalekin eta Kode Zibilaren 5 atalarekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izan ezker, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoarean aurretik, akordio honen aurka BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkez dakioke akordioa hartu zuen organoari HILABETEKO epean.

Guzti hau, egoki deritzan bestelako edozein errekurtsu jarri ahal izatearen kalterik gabe.

V.- ZUBIZKITZA AUZOKO 1. FASEA BERRURBANIZATZEKO LANEN 4. OBRA-EGIAZTAGIRIA (LIKIDAZIOA).-

Zubizkitza auzoko 1. fasea berrurbanizatzeko lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak, Soroa Arquitectos, S.L.P. enpresakoak, eta Estibalitz Igartua arkitekto teknikoak, lanen laugarren obra egiaztagiria eta azkena egin dute. Laugarren obra egiaztagiri honen zenbatekoa BERROGEITA HEMEZORTZI MILA BEDERATZIREHUN ETA HIRU euro ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI zentimokoa (58.903,78 €) gehi B.E.Z.ari dagokion HAMABI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI euro ETA HIRUROGETA HEMERETZI zentimokoa (12.369,79 €) da, guztira HIRUROGETA HAMAIIKA MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU euro ETA BERROGEITA HAMAHAZPI zentimokoa (71.273,57 €).

Lanak SASOI ERAIKUNTZAK, S.L. enpresa ari da burutzen.

Amundarain zinegotziak (EH Bildu) adierazi du abstenitu egingo direla.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta abstentzio bakarrarekin (EH Bildu), laugarren obra egiaztagiri hau onartu egin du.

VI.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-





Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Euskara ikasten ari direnei.-

2023/2024 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Bi ikasle izan dira eta bakoitzari emango zaion kopurua 347 €-koa da, 694 € guztira.

Ordainketa partida honetatik egingo da: aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

VII.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Suthai Taldeari.-

2024rako aurreikusitako dirulaguntzaren % 60, hau da 3.000 €, orain ordaintzea.

Ordainketa 2024ko aurrekontuaren 1 481.06.334.00 2024 partidatik egingo da.

VIII.- KIROL ETA GAZTERIA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol eta Gazteria Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

San Benito Ikastolako 2. Batxilergoko ikasleei.-

Martxoaren 2 eta 3an antolatu duten 24 orduko areto futbol txapelketaren antolakuntzarako, 200 € ematea.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Amundarain zinegotziak (EH Bildu) "Euskaraz barra barra"-ren inguruko informazioa eskatu du. Naldaiz zinegotziak (EAJ-PNV) erantzun dio berak bidaliko diola informazioa e-posta bitartez.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeirenean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtzen dut.